

# Jardueren Txostena

# Memoria de actividades

2020



BILBOKO PORTUA ETA ITSASADARRA FUNDAZIOA  
FUNDACIÓN PUERTO Y RÍA DE BILBAO





# Jardueren Txostena

# Memoria de actividades

## 2020

**Argitaratzailea: Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioa**  
**Edita: Fundación Puerto y Ría de Bilbao**

Bulego nagusiak. Hedapeneko kaia  
Oficinas generales. Muelle Ampliación  
48980 - Santurtzi (Bizkaia)

Tel: + 34 94 487 12 31  
fundacion@bilbaoport.eus  
www.fundazioa.bilbaoport.eus



01	<b>Fundazioaren eraketa</b>	<b>Constitución de la Fundación</b>	PÁGINA 05. ORRIALDEA
02	<b>Fundazioaren helburuak</b>	<b>Fines fundacionales</b>	PÁGINA 06. ORRIALDEA
03	<b>Fundazioaren funtzionamendua</b>	<b>Funcionamiento de la Fundación</b>	PÁGINA 07. ORRIALDEA
04	<b>Patrono fundatzaileen zerrenda</b>	<b>Relación de patronos fundadores</b>	PÁGINA 08. ORRIALDEA
05	<b>Ohorezko enpresa laguntzaileen zerrenda</b>	<b>Relación de empresas colaboradoras de honor</b>	PÁGINA 09. ORRIALDEA
06	<b>Enpresa laguntzaile osoen zerrenda</b>	<b>Relación de empresas colaboradoras de número</b>	PÁGINA 10. ORRIALDEA
07	<b>2020ko ekitaldiko Jarduera-plana</b>	<b>Plan de actuación del ejercicio 2020</b>	PÁGINA 12. ORRIALDEA
08	<b>2020ko Jarduera-planaren likidazioa</b>	<b>Liquidación del Plan de actuación del año 2020</b>	PÁGINA 13. ORRIALDEA
09	<b>2020ko jarduera programa</b>	<b>Programa de actuación 2020</b>	PÁGINA 16. ORRIALDEA

10	<b>Zeharkako jarduerak</b>	<b>Actuaciones transversales</b>	PÁGINA 17. ORRIALDEA
	Kai-Jai Enpresan praktikak egiteko programa	Kai-Jai Programa de prácticas en empresa	17 18
11	<b>Ibaiertzeko udalerrri bakoitzean burututako jarduerak</b>	<b>Actuaciones realizadas en cada municipio ribereño</b>	PÁGINA 19. ORRIALDEA
	Barakaldoko Udala Bilboko Udala Erandioko Udala Getxoko Udala Leioako Udala Portugaleteko Udala Santurtziko Udala Sestaoko Udala Zierbenako Udala	Ayto. de Barakaldo Ayto. de Bilbao Ayto. de Erandio Ayto. de Getxo Ayto. de Leioa Ayto. de Portugalete Ayto. de Santurtzi Ayto. de Sestao Ayto. de Zierbena	20 21 22 23 25 26 27 28 29
12	<b>Proiektuak beste erakundeekin</b>	<b>Proyectos con otras entidades</b>	PÁGINA 32. ORRIALDEA
	Jasangarritasuna Cámarabilbao Deusto Cities Lab Katedra	Sostenibilidad Cámarabilbao Deusto Cities Lab Katedra	32 33
13	<b>Berrikuntzarekin lotutako jarduerak</b>	<b>Actividades relacionadas con la innovación</b>	PÁGINA 34. ORRIALDEA



## 01 Fundazioaren eraketa

**Estatutuek xedatzen dutenez, Fundación Puerto y Ría de Bilbao - Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioa irabazi-asmorik gabeko fundazioa da, nortasun juridikoa eta ondare propioa duena, Erakunde fundatzaileekin loturarik ez duena. Erabateko gaitasuna du bere helburuak betetzeko.**

2011ko apirilaren 1ean emandako eta EAEko Fundazioen Erregistroan 2011ko uztailaren 27an inskribatutako eskritura publikoaren bidez eratu zen legez, eta aplikatu behar zaizkion lege-xedapenek eraenduta dago, bereziki EAEko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak eta EAEko Babesletzaren eta Fundazioen Erregistroen Erregelamenduak onetsi dituzten ekainaren 19ko 100/2007 eta 101/2007 Dekretuek. Kultura, gazte eta kirol fundazioei dagokien 3. atalean dago inskribatuta Fundazioen Erregistroan.

Euskal Autonomi Erkidegoaren eremuan egiten ditu bere jarduerak, eta Patronatuko hamar kidez eratu dago, hots, Bilboko Portuko Agintaritzak eta Nerbioiko Ibaiertzeko bederatzi udalek (Barakaldo, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Zierbena). Patronatuko kideek hasieran 100.000 euroko ondare-baliakizuna jarri zuten, hain zuzen ere Bilboko Portuko Agintaritzak %49 ipinita eta gainerakoa, berriz, ibaiertzeko bederatzi udalerriek, zeinek bere proportzioan.

## Constitución de la Fundación

Tal y como disponen sus Estatutos, la Fundación Puerto y Ría de Bilbao - Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioa es una fundación sin ánimo de lucro, que goza de personalidad jurídica y patrimonio propio e independiente de los Organismos e Instituciones fundadoras, y tiene plena capacidad para el cumplimiento de sus fines.

Fue legalmente constituida mediante escritura pública otorgada en fecha 1 de abril de 2011 e inscrita en el Registro de Fundaciones del País Vasco el 27 de julio de 2011, rigiéndose por las disposiciones legales que le son de aplicación, en particular por la Ley 09/2016, del 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y por los Decretos 100/2007 y 101/2007, del 19 de junio, por los que se aprueban los Reglamentos del Protectorado y Registro de Fundaciones del País Vasco. Su inscripción en el Registro de Fundaciones se incluye en la Sección 3, relativa a las fundaciones culturales, juveniles y deportivas.

La Fundación desarrolla sus actividades en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco y fue constituida por diez patronos, la Autoridad Portuaria de Bilbao y los nueve Ayuntamientos de los municipios ribereños de la Ría del Nervión (Barakaldo, Bilbao, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi, Sestao y Zierbena), con una dotación patrimonial inicial satisfecha por los patronos de 100.000 euros, cantidad aportada en un 49% por la Autoridad Portuaria de Bilbao y el resto proporcionalmente por los nueve municipios ribereños.

## 02 Fundazioaren helburuak

**Fundazioaren helburua interes orokorreko planak eta jarduketak sustatzea eta garatzea da, gizarte-kulturaren eta aisialdiaren arloan proiektio handikoak. Horri esker, hobeto eza-gutuko da Bilboko Portuak hiribilduaren garapen ekonomikoan, sozialean eta kulturean duen eta historian izan duen garrantzia, eta Nerbioiko Ibaiertzeko udalerriak bateratzeko modua emango du, baita portuko sektorearen berrikuntzarekin lotutako egitasmoak zein ekimenak sustatzea eta garatzea ere.**

Helburu zabalaren baitan, honako jarduera hauek burutuko ditu, besteak beste:

- ▲ Bilboko Portuak ibaiertzeko udalerrietan izan duen legatu historikoa, kulturala eta ekonomikoa iker-tzea, zaintzea eta ezagutaraztea, betiere gaiaren inguruko prestakuntza, lanak eta jarduketak sustatuz, zuzenean edo beste ekimen pribatu edo publiko batzuekin batera, edo beste eremu batzuetako erakundeekin lankidetzan programak gauzatu.
- ▲ Portuko sektorearen berrikuntzan, teknologia hobekuntzan eta lehiakortasunean aurrera egiten lagungarri izan daitezkeen proiektuen, ekintzen, ikasketen, ekimenen edo ikerketen sustapena, laguntza edota garapena, adierazitako Fundazioaren helburuak betetzeko diru-laguntzak, sorospenak edo finantza-laguntzak ematea ere barne dagoela.
- ▲ Lankidetzan-hitzarmenak eta jardueren babesletza gizarte, kultura edo kirol arloetan.
- ▲ Portu-sektoreen inguruko Biltzarrak eta Jardunaldi teknikoak, Mintegiak, sektore-topaketak eta pres-takuntza-ikastaroak antolatzea.
- ▲ Portu eremuaren barruko prestakuntzarako laguntzak eta bekak ematea eta argitalpenak egitea.
- ▲ Fundazioaren helburuak betetzera bideraturiko bestelako edozein jarduketa.

## Fines fundacionales

La Fundación tiene por objeto promover y desarrollar planes y actuaciones de interés general, con una amplia proyección sociocultural y recreativa, que permita un mejor conocimiento de la relevancia presente e histórica del Puerto de Bilbao en el desarrollo económico, social y cultural de la Villa, así como la integración de los municipios ribereños de la Ría del Nervión, y el fomento y desarrollo de proyectos e iniciativas vinculadas a la innovación en el sector portuario.

Dentro de estos amplios objetivos desarrollará, entre otras, las siguientes actividades:

- ▲ Investigación, conservación y difusión del legado histórico, cultural y económico del Puerto de Bilbao en los municipios ribereños, fomentando la realización de labores formativas, trabajos y actuaciones sobre la materia, directamente o en colaboración con otras iniciativas públicas o privadas, o en programas de colaboración con entidades y organismos de otros ámbitos.
- ▲ Promoción, fomento y/o desarrollo de proyectos, actividades, estudios, iniciativas o investigaciones que permitan avanzar en la innovación, en la mejora tecnológica y en la competitividad del sector portuario, incluyendo el otorgamiento de subvenciones, asistencias o ayudas financieras para la realización de dichos fines fundacionales.
- ▲ Convenios de colaboración y patrocinio de actividades en los ámbitos sociales, culturales o deportivos.
- ▲ Organización de Congresos y Jornadas técnicas, Seminarios, encuentros sectoriales y cursos de formación dentro de los sectores portuarios.
- ▲ Publicaciones, concesión de becas y ayudas para formación dentro del ámbito portuario.
- ▲ Cualesquiera otras actuaciones orientadas a la consecución de los fines fundacionales.

## 03 Fundazioaren funtzionamendua

Fundazioak ia ez du funtzionamendu gasturik, pertsonalarenak zein orokorrak, zeren eta Bilboko Portuko Agintaritzak ez baitu ezer kobratzen beharrezko lanak egiteko materialaren, egoitza uztearen eta pertsonal propioa jartzearen aldetik.

## Funcionamiento de la Fundación

Los gastos de funcionamiento de la Fundación, tanto de personal como generales, son prácticamente nulos o inexistentes, dada la colaboración desinteresada de la Autoridad Portuaria de Bilbao en cuanto a material, sede y personal propio, para la realización de cuantas tareas fueran precisas.



# 04 Patrono fundatzaileen zerrenda

# Relación de patronos fundadores



## 05 Ohorezko enpresa laguntzaileen zerrenda

## Relación de empresas colaboradoras de honor



# 06

## Enpresa laguntzaile osoen zerrenda

## Relación de empresas colaboradoras de número



**TOROYBETOLAZA**

**CSP Iberian Bilbao Terminal S.L.**





TRANSPORTES CON GRÚA BLANCO S.L.

## 07 2020ko ekitaldiko Jarduera-plana

**2013. urtean, Fundazioaren Patronatuak, Estatuetan xedaturikoaren babesean eta Fundazioaren helburuak betetzeko xedearekin, eta gainera interes komunak helburu orokor horiek garatzeko duen garrantzia aintzat hartuta, hainbat erakunde, enpresa eta sozietate gonbidatu zituen Fundazioari laguntzeko. Izan ere, Fundazioan sartzea onetsi ondoren, 2014. urtetik aurrera hasi ziren kolaboratzen.**

Gauzak horrela, 2020ko ekitaldiari begira, Fundazioak 307.000 euroko diru-sarrerak zituen Patronatuak onartutako jarduerak garatzeko. Diru-sarrera horiek, jatorriaren arabera, honela bana daitezke:

129.000 euro Portuko Agintaritzaren urteko ekarpenari zegozkion.

77.000 euro enpresa Kolaboratzaileen (24) ekarpenei zegozkien, ohorezko enpresek (8) 5.000 euroko ekarpena eginda eta kide numerarioak diren enpresek (16), berriz, 2.000 eurokoa.

Horrez gain, Bilboko Portuko Agintaritzak 101.000 euroko ekarpena egin zuen Bilbao PortLab jarduera berria hasteko.

## Plan de actuación del ejercicio 2020

En el año 2013, el Patronato de la Fundación, al amparo de lo dispuesto en los Estatutos y al objeto de cumplir con los fines Fundacionales, considerando además la relevancia de un interés común en el desarrollo de dichos fines generales, invitó a colaborar con la Fundación a diversas instituciones, organizaciones, empresas y sociedades, quienes una vez aprobada su incorporación a la Fundación, hicieron efectiva su colaboración a partir del año 2014.

De este modo, la Fundación dispuso finalmente para el ejercicio 2020 de unos ingresos de 307.000 euros para el desarrollo de las actividades aprobadas por el Patronato, con la siguiente distribución en atención a sus procedencias:

129.000 euros provinieron de la aportación anual de la Autoridad Portuaria.

77.000 euros de las aportaciones de las empresas Colaboradoras (24), tanto de honor (8), con aportaciones de 5.000 euros, como de número (16), con aportaciones de 2.000 euros.

Adicionalmente, la Autoridad Portuaria de Bilbao realizó una aportación de 101.000 euros para el inicio de la nueva actividad Bilbao PortLab.

## 08 2020. urteko Jarduera-planaren likidazioa

**2020ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioak helburu bi ditu: funtsen xedea egiaztatzea eta Patronoek proposatutako jarduerak benetan gauzatu izana justifikatzea.**

Patronatuak 2019ko abenduaren 16an egindako bileran, hasiera batean, 428.000 euroko diru-sarrerak aurreikusi ziren 2020ko ekitaldirako, Bilboko Portuko Agintaritzak eta Fundazioaren enpresa Laguntzaileek finantzatu beharrekoak. Ekitaldiaren amaieran, diru-sarrera horiek 307.000 eurokoak izan dira, enpresa laguntzaileen benetako diru-sarrera aurreikusitakoa baino txikiagoa izan delako eta Bilboko Portuko Agintaritzak Bilbao PortLab jarduera berrirako aurreikusitako diru-laguntzaren erdia jaso delako.

Hala, 89.100 euro erabili dira IBAIERTZEKO UDALERRIETAN EGITEN DIREN FUNDAZIO-JARDUERETARAKO, eta, beraz, guztira 9.900 euro erabili dira udalerrri horietako bakoitzean egin beharreko jardueretarako, Bilboko Portuko Agintaritzak urtero egiten duen ekarpenaren bidez diruz lagunduta. 2020an, 89.048 euroko gasta egin da partida horretan, Barakaldoko Udalak 9.848 euroko diru-laguntza bakarrik eskatu baitu, zegozkion 9.900 euroatik.

Bilboko Portuko Agintaritzak egindako 129.000 euroko urteko ekarpenaren gainerako diru-sarrerak, hau da, 39.952 euro, Bilboko Portuko Agintaritzaren 101.000 euroko partida Bilbao PortLab jarduera berrirako, bai eta enpresa laguntzaileek egindako ekarpenen 77.000 euroak ere, 2020. urtean, 61.349 euroko zenbatekoa izan duen ENPRESAN PRAKTIKAK EGITEKO PROGRAMA; COVID-19 delakoak eragindako murrizketengatik ospatu ezin izan den KAI JAI - BILBOKO PORTUKO EGUNA zeharkako jarduera; eta osasun alertaren ondorioz bere hasiera atzeratu egin behar izan duen BILBAO PORTLAB jarduera berria finantzatzeko erabili dira.


## Liquidación del Plan de actuación del año 2020

**La liquidación del presupuesto del ejercicio 2020 tiene la doble función de verificar el destino de los fondos y de justificar la efectiva materialización de las actividades propuestas por los Patronos.**

En la reunión del Patronato celebrada el 16 de diciembre de 2019 se presupuestaron inicialmente unos ingresos de 428.000 euros para el ejercicio 2020 a financiar por la Autoridad Portuaria de Bilbao y las empresas Colaboradoras de la Fundación. Al cierre del ejercicio dichos ingresos han ascendido a la cantidad de 307.000 euros, dado que el ingreso real de las empresas colaboradoras ha sido menor del previsto y a que se ha recibido la mitad de la subvención prevista de la Autoridad Portuaria de Bilbao para la nueva actividad Bilbao PortLab.

Así, el importe destinado a las ACTIVIDADES FUNDACIONALES EN LOS DISTINTOS MUNICIPIOS RIBEREÑOS ha sido de 89.100 euros, por lo que se ha dispuesto de un total de 9.900 euros para las actividades ha desarrollar en cada uno de estos municipios, subvencionadas a través de la aportación anual realizada por la Autoridad Portuaria de Bilbao. El gasto final en esta partida en 2020 ha ascendido a la cantidad de 89.048 euros debido a que el Ayuntamiento de Barakaldo ha solicitado únicamente una subvención de 9.848 euros del total de 9.900 euros que le correspondían.

El resto de ingresos de la aportación anual de 129.000 euros realizada por la Autoridad Portuaria de Bilbao, es decir, 39.952 euros, la partida de 101.000 euros de la Autoridad Portuaria de Bilbao para la nueva actividad Bilbao PortLab, así como los 77.000 euros de las aportaciones realizadas por las distintas empresas colaboradoras, se han destinado a la financiación del PROGRAMA DE PRÁCTICAS EN LA EMPRESA, cuyo importe en el año 2020 ha sido de 61.349 euros; de la actividad transversal KAI JAI - DÍA DEL PUERTO DE BILBAO - que no se ha podido celebrar debido a las restricciones provocadas por la COVID-19 -; y la nueva actividad BILBAO PORTLAB, que ha sufrido un retraso en su inicio como consecuencia de la alerta sanitaria.


 <b>2020ko sarrerak</b> <b>Ingresos 2020</b>	Aurrekontua Presupuesto	Benetakoak Reales	SUPERABITA / SUPERÁVIT (Defizita / Déficit)
<b>Errepikatuak/ohiko jarduerak</b> Actividades recurrentes/habituales	226.000	206.000	(-20.000)
<b>Bilboko Portuko Agintaritza</b> Autoridad Portuaria de Bilbao	129.000	129.000	0
<b>Laguntzaileak</b> Colaboradores	97.000	77.000	(-20.000)
<b>Jarduera berria (Bilbao PortLab)</b> Nueva actividad (Bilbao PortLab)	202.000	101.000	(-101.000)
<b>Bilboko Portuko Agintaritza</b> Autoridad Portuaria de Bilbao	202.000	101.000	(-101.000)
<b>Diru-sarrerak guztira</b> Total ingresos	428.000	307.000	(-121.000)

**Diruz lagundutako fundazio-jarduera guztiak eta dagokien aurrekontu-zuzkidura, baita zeharkako jarduerak egitea ere, bat datoz Patronatuak 2019ko abenduaren 16an egindako bileran zehaztutakoarekin.**

**Diru-sarrerak:** Diru-sarreretan 121.000 euroko defizita izan da, ez baitira bete laguntzaileen diru-sarrera erreala lortzeko itxaropenak, eta Bilbao PortLab jardue-  
ra berrirako Bilboko Portuko Agintaritzatik jaso den zen-  
batekoa hasieran aurrekontuan sartutakoaren erdia izan  
delako.

Todas las actividades fundacionales objeto de subvención y su correspondiente dotación presu-  
puestaria, así como la realización de las actividades  
transversales, se corresponden con lo detallado en  
la reunión del Patronato de fecha 16 de diciembre  
de 2019.

**Ingresos:** Se ha producido un déficit en los ingresos  
de 121.000 euros debido a que no se han cumplido las  
expectativas de ingreso real de los colaboradores y a que  
el importe que se ha recibido de la Autoridad Portuaria  
de Bilbao para la nueva actividad Bilbao PortLab ha sido  
la mitad de lo inicialmente presupuestado.

	<b>2020ko gastuak</b> <b>Gastos 2020</b>	<b>Aurrekontua</b> <b>Presupuesto</b>	<b>Benetakoak</b> <b>Reales</b>	<b>DEFIZITA / DÉFICIT</b> <b>(Superabita / Superávit)</b>
<hr/>				
	<b>Errepikatuak/ohiko jarduerak</b> Actividades recurrentes/habituales	226.000	152.894	(-73.106)
<hr/>				
	<b>Jardueren gauzatzea 2020</b> Ejecución actuaciones 2020			
	<b>Ibaiertzeko udalerrietako jarduerak</b> Actividades municipios ribereños	89.100	89.048	(-52)
	<b>Bekak eta Praktikak BPAñ</b> Becas y Prácticas en la APB	74.900	61.349	(-13.551)
	<b>KAI JAI Zeharkako Jarduera</b> Actividad Transversal KAI JAI	60.000	0	(-60.000)
<hr/>				
	<b>Jardueraren beste gastu batzuk</b> Otros gastos de la actividad	2.000	2.497	497
<hr/>				
	<b>Jarduera berria (Bilbao PortLab)</b> Nueva actividad (Bilbao PortLab)	202.000	97.670	(-104.330)
<hr/>				
	<b>Kudeaketa gastuak</b> Gastos de gestión	102.000	43.632	(-58.368)
<hr/>				
	<b>Ikerketa eta Prestakuntza-hitzarmenak</b> Acuerdos de Investigación y Formación	100.000	54.038	(-45.962)
<hr/>				
	<b>Gastuak guztira</b> Total gastos	428.000	250.563	(-177.437)
<hr/>				
	<b>Desbiderapena guztira</b> Total desviación			56.437
<hr/>				

**Gastuak:** Gastuen desbideratze positiboa 177.437 eurokoa izan da, ikus superabita bat. Aurrekontuarekin alderatuta, gastu txikiagoa izan da, batez ere, KAI JAI - PORTUAREN EGUNA Zeharkako Jarduera bertan behera utzi delako eta BILBAO PORTLAB jarduera has-tean izandako atzerapenak eragindako gastu txikiengatik, COVID-19ak sortutako pandemia dela eta. Gainera, praktikak egiteko beketarako aurrekontuan jasotako gastu guztia ere ez da gauzatu. Horrez gain, 52 euroko super- abita dago ibaiertzeko udalerrien jardueretan, Barakaldoko Udalak 9.848 euro eskatu baitzituen zegozkion 9.900 euroetatik.

Beste gastuak, 2020ko ekitaldirako 2.497 eurokoak, hauek izan dira: FUNKO - Fundazioen Euskal Konfederazioaren urteko kuota eta 2020ko Ekitaldiko Urteko Kontuen auditoretza egitea.

**Desbideraketa guztira (emaitza):** Arestian aipatutako guztiaren ondorioz, 56.347 euro desbideratzen dira aurrekontuan, zenbateko hori 2020ko ekitaldiko soberakin positiboa izanda.

**Gastos:** Se ha producido una desviación positiva de los gastos de 177.437 euros, véase un superávit. Este menor gasto respecto a lo presupuestado es debido, principalmente, a la cancelación de la Actividad Transversal KAI JAI - DÍA DEL PUERTO y a los menores gastos incurridos por el retraso en la iniciación de la Actividad BILBAO PORTLAB debido a la pandemia generada por la COVID-19. Además, tampoco se ha ejecutado todo el gasto presupuestado para las becas de prácticas. Adicionalmente, hay un superávit de 52 euros en las actividades de los municipios ribereños debido a que el Ayuntamiento de Barakaldo solicitó 9.848 euros de los 9.900 euros que le correspondían.

Los otros gastos, por importe de 2.497 euros para el ejercicio 2020 han sido: cuota anual de FUNKO - Confederación Vasca de Fundaciones y realizar la auditoría de las Cuentas Anuales del Ejercicio 2020.

**Desviación total (Resultado):** Todo lo comentado anteriormente hace una desviación presupuestaria de 56.347 euros, siendo este importe el del excedente positivo del ejercicio 2020.

## 09 2020ko jarduera programa

2019ko abenduaren 16ko bileran, Patronatuak 2020ko ekitaldirako jarduera-programazioa onetsi zuen, Fundazioaren eraketa justifikatzen duten helburuekin bat. Izan ere, Patronatuak uste zuen Fundazioko funtsak laugarren programan egindako jarduerak ordaintzeko nahikoak zirela, hortaz, programaren bideragarritasuna bermatuta zegoela eta hurrengo ekitaldietarako, programazioaren jarraitutasuna bermatzeko, dagozkien aurrekontu-konpromisoak sinatuko zirela.

## Programa de actuación 2020

El Patronato aprobó, en su reunión del 16 de diciembre de 2019, el Programa de actuaciones del ejercicio 2020 de acuerdo con los fines que justifican la constitución de la Fundación, bajo la consideración de que los fondos existentes resultaban suficientes para atender las actuaciones que se realizaron en el cuarto programa de actuaciones de la Fundación, por lo que la viabilidad del mismo estaba garantizada y para los ejercicios siguientes se formalizarán los compromisos presupuestarios correspondientes que garanticen su continuidad.

## Programak hiru jarduketa-ardatz ditu, non hainbat jarduera biltzen diren:

1. Zeharkako jarduerak:
  - 1.1. Kai Jai - Bilboko Portuaren eguna
  - 1.2. Enpresan praktikak egiteko programa
2. Fundazioko bederatzi udalerrietako ekimenaz eginiko jarduketak
3. Berrikuntzarekin lotutako jarduerak

## Dicho Programa tiene tres ejes de actuación, en los que se integran las diferentes actividades:

1. Actuaciones transversales:
  - 1.1. Kai Jai - Día del Puerto de Bilbao
  - 1.2. Programa de prácticas en la empresa
2. Actuaciones realizadas a iniciativa de cada uno de los nueve municipios integrantes de la Fundación
3. Actuaciones relacionadas con la innovación

# 10 Zeharkako jarduerak

# Actuaciones transversales

## 10.1 Kai Jai - Bilboko Portuaren eguna

## Kai Jai - Día del Puerto de Bilbao

Urteko ekitaldi hau, 2015. urtean hasi zena, formatu handiko jarduera da, jai-girokoa, eta oinarri hartuta familia-aisialdi partekatua, balioetan oinarritutako hezkuntza eta jarduera ludiko eta kulturala, jendeari Bilboko Portuaren eta haren inguruko udalerrien errealitatera hurbiltzeko xedea duena, eta bere historiari, ekonomiari eta bizitzari ekarpena zabalduz, ez bakarrik gure eskualdean, baita Euskal Herri osoan ere. 2017az geroztik, Getxoko "Olatua" gurutzaldi-terminalean ospatzen da, erosotasunagatik, segurtasunagatik eta logistikagatik.

Aurten, COVID-19 pandemiaren ondoriozko osasun-egoera dela eta, ekitaldi hori bertan behera uztea erabaki da, datu epidemiologikoen arabera, jendea pilatzea dakarren jarduera bat egitea komeni ez zelako, 2020ko ekainaren 25eko Patronatuaren bileran berretsi zen bezala.

Este evento anual, que se inició en 2015, es una actividad de gran formato, festiva y que, tomando como base el ocio familiar compartido, la educación en valores y la actividad lúdica y cultural, sirve para acercar al público a la realidad del Puerto de Bilbao y sus municipios ribereños, difundiendo su aportación a la historia, la economía y la vida, no sólo de nuestra comarca, sino de todo el País Vasco. Desde el año 2017 ha venido realizándose en la Terminal de Cruceros "Olatua" de Getxo, por comodidad, seguridad y logística.

Este año, motivado por la situación sanitaria derivada de la pandemia de la COVID-19, se ha optado por la cancelación de este evento, por descartar los datos epidemiológicos la conveniencia de la realización de una actividad que implica la aglomeración de personas, tal y como se ratificó en la reunión del Patronato de fecha 25 de junio de 2020.

## 10.2 Enpresan praktikak egiteko programa

Aurten ere, eta seigarrenez, Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioak 'Enpresan Praktikak egiteko Programa' sustatu du, Patronatuko kideen arteko lankidetzaren esparruan, Bilboko Portuko Agintaritzaren sailletako arlo funtzioaletan gauzatu dena. 2020an, bi praktika-deialdi izan dira BPA n aldi berean: 2019-2020 deialdia, 2019ko urritik 2020ko ekainera bitartean egin dena, eta 2020-2021 deialdia, 2020ko urrian hasi eta 2021eko ekainean bukatuko dena.

Bi deialdietan Fundazioaren Patronatua osatzen duten 9 udalerrietako batean bizi diren 10 pertsona sartu dira. Eskaintzen ziren hamar plazak unibertsitate-ikasketan edo Goi Mailako Heziketa Zikloetan titulua duten 30 urtetik beherako gazteei zuzenduta zeuden, amaitutako ikasketak egin dituztenei, langabezian zeudenei, beren prestakuntzari lotutako esperientzia kualifikaturik ez zutenei eta aurretik lanbide-praktiketako bekarik izan ez zutenei, mota honetako beka kudeatzen dituen Novia Salcedo Fundazioak ezartzen dituen baldintzak betez.

Praktika astean 25 ordukoa izan da, astelehenetik ostiralera, goizez, eta Bilboko Portuko Agintaritzaren sail ezberdinetako arlo funtzioaletan garatu da. Portuko Agintaritzak beharrezko baliabide material, didaktiko eta tutoretza guztiak jartzen ditu proiektuaren eskura, praktikak behar bezala egiteko eta ikasle onuradunek hobeto aprobetxatzeko. Oraingo honetan nabarmendu behar da, COVID-19ak sortutako osasun-egoera dela eta, 2020ko martxoan erabaki zela ikasle bekadunek beren prestakuntza-prozesua formatu ez-presentzian osatzea, horretarako behar diren baliabideak eta tutoreen erabateko inplikazioa izanda. 2020-2021 deialdia BPAren instalazioetan bertan egiten ari da % 100, nahiz eta beharrezkoak diren bitartekoak jarri diren prestakuntzarekin telematikoki jarraitzeko, egoerak hala gomendatuko balu.

Beka horien zenbatekoa 2020ko ekitaldirako 61.349,19 eurokoa izan da.

## Programa de prácticas en empresa

Un año más, el sexto en esta ocasión, la Fundación Puerto y Ría de Bilbao ha promovido el 'Programa de Prácticas en Empresa' que se ha desarrollado, en el marco de la colaboración entre los miembros del Patronato, en las áreas funcionales de los distintos departamentos de la Autoridad Portuaria de Bilbao. A lo largo de 2020 han convivido en la APB dos convocatorias de prácticas: la convocatoria 2019-2020, que ha desarrollado entre los meses de octubre de 2019 y junio de 2020, y la convocatoria 2020-2021, que tuvo su inicio en octubre de 2020 y finalizará en junio de 2021.

En ambas convocatorias se han incorporado 10 personas oriundas de uno de los 9 municipios ribereños que componen el Patronato de la Fundación. Las diez plazas ofertadas estaban dirigidas a jóvenes titulados/as en estudios universitarios o en Ciclos Formativos de Grado Superior, menores de 30 años con los estudios concluidos, en situación de desempleo, sin experiencia cualificada relacionada con su formación y sin haber disfrutado con anterioridad de una beca en prácticas profesionales, tal y como establecen los requisitos de la Fundación Novia Salcedo, que gestiona este tipo de becas.

La práctica, que ha comprendido 25 horas semanales, de lunes a viernes, en horario de mañana, se ha desarrollado en las distintas áreas funcionales de los diferentes departamentos de la Autoridad Portuaria de Bilbao, que pone a disposición del proyecto todos los recursos materiales, didácticos y de tutoría necesarios para el correcto desarrollo de las prácticas y su mejor aprovechamiento por los alumnos y alumnas beneficiarios/as. En esta ocasión cabe destacar que, debido a la situación sanitaria generada por la COVID-19, en marzo de 2020 se tomó la decisión de que las personas becadas completaran su proceso formativo en formato no presencial, contando en todo momento con los medios necesarios para ello y la completa implicación de sus tutores. La convocatoria 2020-2021 se está llevando a cabo de manera 100% presencial en las instalaciones de la APB, si bien se han dispuesto los medios necesarios para poder continuar con la formación de manera telemática si la situación lo aconsejara.

El coste de la realización de dichas becas para el ejercicio 2020 fue de 61.349,19 euros.

## 11 Ibaiertzeko udalerrri bakoitzean burututako jarduerak

2019ko abenduaren 16ko bileran, halaber, Fundazioaren Patronatuak diren bederatzi ibaiertzeko Udal bakoitzak aurkeztutako proposamenak ere onartu zituen Fundazioko Patronatuak, udalerrri bakoitzak bere jarduerak garatzeko.

Kulturaren, prestakuntzaren, kirolaren eta gizartearen arloekin loturiko programak dira, Fundazioaren sortze-helburuekin bat, eta soilik udalen euren ekimenaz eta eurek antolatuta garatzen dira, edo bestela udalerrri bakoitzean lan egiten duten kultur eta kirol erakundeekin lankidetzan jardunda.

Fundazioak, Bilboko Portuko Agintaritzaren giza eta antolamenduko baliabideak eta logistika erabiliz, zeharkako jarduera komunak egiten ditu eta bakoitza antolatzeko eta oso-osorik finantzatzeko ardura du. Horiekin ez bezala, udalerrri bakoitzean eginiko programetan, Fundazioak ez du parterik hartzen jarduerak sortzeko edo antolatzeko prozesuan; kasu bakoitzean onetsitako diru-ekarpena jarri baizik ez du egiten. Sustatzaile bakoitzak jarduera bakoitzerako proposaturiko finantzaketa-planari dagokio ekarpen hori eta bestelako ekarpen publikoak eta pribatuak.

Jarraian, udalerrri bakoitzean eginiko jarduera horietako bakoitzaren ildo nagusiak azaltzen dira.

## Actividades realizadas en cada municipio ribereño

En la reunión del Patronato de la Fundación de fecha 16 de diciembre de 2019 se aprobaron, igualmente, las diferentes propuestas presentadas por cada uno de los nueve Ayuntamientos ribereños que son patronos fundadores, para ser desarrolladas en cada uno de sus municipios.

Se trata de programas vinculados a los ámbitos culturales, formativos, deportivos y sociales, en sintonía con los fines fundacionales, y que son desarrollados bien por iniciativa y organización exclusivamente municipal, bien en colaboración con diferentes entidades de carácter cultural y deportivo que trabajan en cada uno de los municipios.




A diferencia de las actividades transversales y comunes en que la Fundación, con el soporte personal, organizativo y logístico de la Autoridad Portuaria de Bilbao, se encarga de la organización y financiación plena de cada una de ellas, en el caso de los programas realizados en cada municipio, la Fundación no participa en su diseño o en su organización, circunscribiendo su apoyo a la correspondiente aportación económica aprobada en cada caso. Dicha contribución constituye una parte más que, sumada a otras aportaciones de carácter público y privado, constituyen el plan de financiación planteado por cada uno de los promotores para el desarrollo de cada actividad.

